



Arartekoaren 2014R-2497-13 ebazpena, 2014ko apirilaren 15ekoa. Horren bidez, Getxoko Udalari gomendatu zaio XXXX kalean dagoen taberna-jatetxeko jarduerari dagokionez hirigintzako legezkotasuna eta ingurumen-legezkotasuna betetzeko salaketei erantzuna eman diezaien.

Aurrekariak

1. Pertsona batek gure iritziaren menpe jarri du udalak ez duela ezer egin Getxoko XXXX kaleko XXXX taberna-jatetxeak, haren bizilekutik hurbil dagoenak, garatzen duen ostalaritza-jarduera kontrolatzeko.

Zehazki, kexak adierazi du jarduera horrek –lehen XXXX taberna deitzen zen– ez duela ordenamenduak haren funtzionamendua baimentzeko eskatzen dituen hirigintzako betebeharrak eta ingurumen-betebeharrak betetzen. Kexagileak Getxoko Udalari kontu horren inguruan aurkeztu dizkion idazki batzuk aipatu ditu, baina idazkiok ez dute erantzun egokirik jaso.

Salaketetako batek –2011ko azaroaren 21ean egindakoak– udala 2008ko azaroaren 27ko 6648/2008 Alkatetza Dekretua betetzera hertsatu zuen. Era berean, jardueraren funtzionamenduagatik, zaratei buruzko ordenantza ez betetzeagatik eta lokalaren goiko solairuaren erabilera desegokiagatik egindako zenbait salaketa aipatu ditu. Bestalde, hainbat bider jardueraren handitzea erregularizatzeko administrazio-espediterako sarbidea eskatu du (2012ko maiatzaren 25ean, ekainaren 22an eta irailaren 19an), baina ez du inolako erantzunik lortu.

Kontu horiek guztiak abuztuaren 31ko 4252/2012 Udal Dekretuaren aurkako berrezartzeko errekurtsioan –kexagileak 2012ko urriaren 18an aurkeztutakoan– aipatu ziren. Udal-dekretu horren bidez, Getxoko Udalak XXXX taberna-jatetxeari obra- eta jarduera-lizentzia eman zion.

Kexagileak nabarmendu du horren ostean ez duela haren errekurtsorako erantzunari buruzko eta horren inguruan jarraitutako udal-jardunei buruzko informazio gehiagorik jaso.

2. Erreklamazio horri izapide egokia emate aldera, Getxoko Udalera jo dugu gaiaren inguruko informazioa biltzeko asmoz.

Joan den 2014ko urtarrilaren 22an, Getxoko Udalak txosten bat bidali digu. Bertan, kexagileari jarduera horri buruz helarazitako informazioaren berri eman digu. Txostenak zehaztu duenez, –2012ko ekainaren 5ean– haren esku jarri zituen tabernaren jarduera handitzearekin lotuta egin diren eta agirietan jasota dauden jardun guztiak. Halaber, aipatutako abuztuaren 31ko 4252/2012 Ebazpena (horren bitartez, jarduera- eta obra-lizentzia eman zion) komunikatu





digu, baita 259/2014 Ebazpenaren bidez onartutako jardueraren titulartasun-aldaketa ere.

3. Kontu horiek interesdunari helarazi dizkio, eta horrek jarduera horren funtzionamenduaren kontrol eta ikuskapen faltarekiko desadostasunari eutsi dio. Alde batetik, jarduera handitua abiarazteari bidea ematen dion administrazio-baimenik ez dagoela errepikatu du. Bestetik, kexagileak azpimarratu du ez dietela erantzun zaratengatik eta bide publikoa okupatzeagatik aurkeztutako salaketei, ezta jarduera- eta obra-lizentziaren kontra aurkeztutako berrezartzeko errekurtsuari ere.

Aurrekari horiek guztiak ikusirik, egokia iruditu zaigu aipatutako kexa-espeditenteari buruzko zenbait gogoeta helaraztea, zehazki, erreklamazioak hizpide duen gaiaren ingurukoak:

Gogoetak

1. **Erreklamazioaren xedea.** Kexagileak bere kexa-idazkian hainbat kontu adierazi ditu XXXX kalean garatzen den taberna-jatetxeko jardueraren hirigintzako legezkotasuna eta ingurumen-legezkotasuna kontrolatzeko udalak bideratutako jardunari buruz.

Alde batetik, esan du taberna egokitzeko egin diren obrak erregularizatzeko eta taberna-jatetxearen ingurumen-kontrola egiteko jarraitutako hirigintzako espedienteetan jasota dagoen dokumentazioa eskuratzeko zailtasunak izan dituela.

Bestetik, kexagileak azaldu du ingurumen-kontrol bat egon behar dela jarduera horrek dagozkion administrazio-lizentziak eduki ditzala eta mota horretako jarduera gogaikarriei eska dakizkiekeen neurri zuzentzaileak bete ditzala eskatzeko. Halaber, jarduera horretan egindako handitzeko obretan hirigintzako legezkotasuna bermatzeko esku hartu behar dela adierazi du. Nolanahi ere, agerian utzi du udalak jarduera- eta obra-lizentziaren kontra aurkeztutako berrezartzeko errekurtsuari erantzuna emateko betebeharra daukala.

2. **Hirigintzarekin eta ingurumenarekin lotutako espedienteetan jasota dagoen dokumentaziorako sarbidea.** Lehenengo eta behin, kexagileak adierazi du hirigintzarekin eta ingurumenarekin lotutako espedientei buruzko dokumentazioa eskuratzeko zailtasunak izan dituela.





Getxoko Udalak bidalitako erantzunak jakinarazi digu taberna-jatetxea handitzeko egin diren jardunen inguruan eskatutako dokumentaziorako sarbidea haren esku jarri dela udal-bulegoetan.

Nolanahi ere, kexagileak errepikatu du geroko eskaeretan helarazi ez dioten informazioa eskatu duela. Horrela, 2012ko irailaren 19ko idazkia aipatu du. Bertan, tabernaren jarduera handitzeko lizentziarako proiektuaren eta administrazio-espeditentearen kopia eskatu du. Era berean, XXX-XXXX errepidea handitzeko proiektuari buruzko informazioa eskatu du. Kexagileak nabarmendu duenez, orain arte ez du eskatutako dokumentazio hori jaso.

Hirigintzarekin eta ingurumenarekin lotutako gaietan informazioa edukitzeko eta espeditenteak eskuratzeko eskubide horrek ordenamendu juridikoak jasotzen duen ekintza publikoarekin harreman zuzena du, eta edozein herritar edo elkarteri baimentzen dio jardutea, interes zuzena frogatzeko beharrik gabe, hirigintzako legezkotasuna betetzen dela ziurtatzeko.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak parte-hartzearen eta informazioaren printzipioak sartzen ditu -8. eta 9. Artikuluak-. Horien arabera, pertsona guztiek daukate legitimazio berezirik frogatu gabe interesatu gisa agertzeko eskubidea, bai eta artxiboetan dauden agiriak ikusi eta haien kopia eskuratzeko eskubidea ere. Lurzoruari buruzko legearen testu bategina onesten duen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuak herritarren eskubide gisa ezartzen ditu informazioa ikustea eta hartutako administrazio-egintzen kopia eskuratzea.

Ingurumen-informazioa eskuratzeko eskubidea gure antolamendu juridikoan era espezifikoan jasota dago ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean eta ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziarako sarbidea edukitzeko eskubideak arautzen dituen ekainaren 18ko 27/2006 Legean.

Horrek esan nahi du izapidetzearen edozein unetan administrazio-espeditenteak ikusi eta haien kopia -35 a) artikulua-, edo amaitutako espeditenteak osatzen dituzten agirien kopia -Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (HAAJAPEL) 37. artikulua, gaur egun berrikusitakoak, jasotzen zuen moduan- eskuratzeko eskubidea dutela.

Hirigintzako informaziorako eskubidea bermatzeko bi mekanismo daude eratuta: udal-bulegoetan administrazio-espeditenteak materialki eta zuzenean aztertzea, eta izapidetu diren hirigintzako espeditenteak osatzen dituen dokumentazioaren kopia idatziz eskatzea.



Modu horretan, azpimarratu behar da hirigintzako informazioaren eta ingurumen-informazioaren eskaerak era azkarrean, lehentasuna emanik eta legezko epeen barruan izapidetu eta ebatzi behar direla.

- 3. Aurkeztutako salaketei erantzuteko betebeharra.** Lehenik eta behin, hirigintzarekin eta ingurumenarekin lotutako araudia urratzeagatik aurkeztutako salaketen aurrean jarraitu behar zaion izapidea nabarmendu behar dugu.

Salaketek hirigintzako plangintzaren zehaztapenak betetzen ez dituzten hirigintzako obren edo erabileren berri eman dezakete, edo ingurumen-kontrolaren menpe dagoen jardura orori ezarritako neurriak ez betetzeari buruzko erreklamazioak izan daitezke.

Udal horri bidalitako komunikazio guztiak, egitate zehatz batzuk aipatzen badituzte, salaketatzat jo behar dira eta organo eskudunari helarazi behar zaizkio.

Hirigintzako legezkotasunaren eta ingurumen-legezkotasunaren defentsaren arloan dagoen ekintza publikoak administrazio-espediente bat izapidetzea ekartzen du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak xedatzen duen moduan.

Horregatik, gure aburuz, salaketek, beti eta kasu guztietan, administrazio-izapidetze bat eskatzen dute, eta udal-kontrolerako organoek ezin dituzte alboratu.

Ilido horretan, salatutako kontuak baloratu ondoren, organo eskudunak dagokion espedientea hastea azertu behar du edo, bestela, eskatzailearen uzia ez onartuz amaitu behar du. Kasu guztietan, ekintza publikoa egikaritzeak alde interesatuei esku-hartzea artxibatu izanaren berri emateko betebeharra dakar, kasu bakoitzean dagozkion ekintzak eta errekurtsioak erabili ahal izateko. Horrela, kontuan hartu behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 34. artikulua zera xedatzen duela: "*Organo eskudunak jardunbidea irekiko duen edo ez eta, hala badagokio, jardunbide horri amaiera emango dion ebazpena jakinaraziko dio salatzaileari, honek horretarako eskubidea du-eta*".

Kexagileak hirigintzako lizentziarik eduki gabe obrak eta erabilerak egiteagatik (lokalaren goiko solairua erabiltzea eta espazio publikoak okupatzea) eta lokalaren handitzearen erabilerari baimentzen duen ingurumen-



lizentziarik ez edukitzeagatik aurkeztutako zenbait salaketa aipatu ditu, baita jarduerari ezarritako neurri zuzentzaileak bete ez zirela salatu dutenak ere.

Dena den, erakunde honi helarazitako informazioaren arabera, ez da jaso salatutako egitateak egiaztatzeko edo modu eraginkorrean hirigintzako legezkotasuna eta ingurumen-legezkotasuna berrezartzeko asmoz bideratutako udal-jardunik edo administrazio-espediterik.

4. **Eraikuntzako obretarako eta hirigintzako erabileretarako hirigintzako lizentziak.** Alde batetik, kexagileak salatu du obrak egin direla, espazio publikoa okupatu dela eta udalak ez duela horren inguruko erantzun egokirik eman. Obren edo erabileren sustatzailea eraikuntzako obretarako eta horien aldaketetarako hirigintzako lizentzien erregimenaren menpe dago, obrak egin baino lehen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207. eta 210. artikuluen arabera.

Modu horretan, eraikinaren konfigurazioa, kanpoko itxura edo erabilera aldatzen dituzten eraikuntzako obrek hirigintzako lizentzia eduki behar dute.

Jabeen eta obren sustatzaileen eginbehar horiek toki-administrazioek kontrolatzen dituzte. LHLak, 204. artikuluan, ezartzen du udalak arduratuko direla hirigintzako legezkotasuna betetzen dela zaintzeaz. Zehazki, hauxe jasotzen da bigarren paragrafoan: *Titulu honetan arautzen diren ahalz baldintzeari ezingo zaio uko egin. Horretarako, agintari eta funtzionarioak behartuta daude ahal horietaz baldintzeko ezarritako prozedurak hastera eta izapideak egitera, kasu bakoitzerako aurreikusitako epearen barruan. Eginbehar hori ez betetzeak diziplina-erantzukizuna ekar dezake.*

lido horretan, agerian jarri behar da ikuskatzeko, hirigintzako legezkotasuna babesteko, urratutako ordena berrezartzeko eta arau-haustea zigortzeko administrazio-ahalen egikaritzea xedaezina eta ukaezina dela.

Kasu horretan, udalak aintzat hartu du ataripeko hutsuneak kristalez ixteko edo kanpoaldean bankuak jartzeko obrak dagozkion lizentziarik gabe egitea. Kexagileak obra horiek salatu ditu, baina ez da jaso hirigintzako legezkotasuna berrezartzeko bideratu den udal-jardunik.

5. **Taberna-jatetxeko jarduera alde aurretik kontrolatzeko administrazioaren esku-hartzea.** Bestalde, erreklamazioak adierazi du udalak ez duela ezer egin haren etxebizitzarekin mugakidea den taberna-jatetxeko jardueraren titularrak ingurumen-legezkotasuna betetzen duela kontrolatzeko. Besteak beste, 2012ko maiatzaren 25eko salaketa-idazkia aipatu du. Bertan, beheko solairuan





taberna-jatetxe gisa erabiltzeko lokalaren handitzea legeztatzeko bideratu diren udal-jardunei buruzko informazioa eskatu du.

Zehaztu behar da lokalaren handitzeak jarduera- eta obra-lizentzia daukala, abuztuaren 31ko 4252/2012 Ebazpenaren bidez. Ebazpen horrek adierazi du lokalaren funtzionamendua ziurtagiri tekniko bat —2 hilabeteko epean— aurkeztearen menpe dagoela. Ziurtagiri horrek ezarritako neurri zuzentzaileak (horien artean, aireko zarataren aurkako isolamendu akustikoa) betetzen direla justifikatu behar du. Dena den, ez da jaso horren ostean lokalaren handitzearen funtzionamendua baimentzeko bideratutako jardunik.

Udal-txostenak geroko komunikazio bat jaso du, 2013ko irailaren 4koa. Bertan, udala jarduera-lizentziaren titulartasun-aldaketaren jakitun geratu da. Ebazpen horrek aipatu du data horretara arte ez dela eman lokalaren handitzearen funtzionamendurako baimenik.

Ingurumen-kontrolak ingurumen-egokitasuna justifikatzen duen eta gaitzen duen administrazioko titulu bat eskatzen du; titulu hori nahitaezkoa da eta jarduera abian jarri aurretik eduki behar da. Halaber, ingurumen-kontrola ez da baimen horretara mugatzen; aitzitik, era egokian garatzeko, jarraipena egin behar zaio eta emaitza jakinak eskatu behar zaizkio alde aurretik finkatutako ingurumenaren kalitaterako helburuei dagokienez.

Kasu horretan, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 55.1. artikulua ezartzen duenez, sailkatutako jarduerak lizentzia administratiboaren edo alde aurretiko komunikazioaren erregimenaren menpe daude abian jartzeko ezinbesteko betekizun gisa.

Aipatutako arauak baimen bikoitza behar dela ezartzen du: ingurumenaren kalitate egokia bermatuko duten neurri zuzentzaileak finkatzen dituen jarduera-lizentzia bat eta, horren ostean, neurri horiek benetan betetzen direla bermatzen duen sustatzailearen komunikazio bat. 3/1998 Legearen 61.2. artikulua adierazten duenez, sailkatutako jarduerako lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak jarritakoan eta instalazioak egokitutakoan, jardueraren hasiera alde aurretiko komunikazioaren erregimenaren menpe egongo da.

Gogorarazi behar dugu 65. artikulua zera ezartzen duela: dagozkien zigoren kalterik gabe, alkateak jarduera batek beharrezko lizentziarik gabe edo alde aurretik komunikazioa egin gabe funtzionatzen duela jakiten duenean, titularrak errekerituko du sei hilabeteko gehienezko epean egoera arauen barruan jar dezan. Bestela, edo jarduera ezin bada legeztatu, *“itxi egin behar da, interesatuari entzun ondoren”*.





Aztertzen ari garen kasuan, Getxoko Udalak, kexagilearen salaketak gorabehera, ez du esku hartu funtzionamendua komunikatu gabe eta ingurumen-betekizun guztiak betetzen dituela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkeztu gabe garatzen ari den taberna-jatetxea handitzeko jarduera erregularizatzeko. Titulartasun-aldaketari buruzko udal-txostenak honakoa egiaztatu du: "*ez da eman lokalaren handitzearen funtzionamendurako baimenik*". Udalak kontu hori jakinarazi baino ez du egin, eta ez du ingurumen-diziplinako bestelako neurririk hartu.

Zentzu horretan, gogorarazi behar dugu toki-erakundeek inoiz ezin dutela atzera egin ingurumen-legezketasunaren kontrakoak diren egoeren aurrean. Beharrezko administrazio-baimenik ez duten jardueren kasuan, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian mantentzen den irizpidearen arabera, lizentziarik gabeko jarduerak klandestinitzat jotzen dira, eta Zuzenbidearekin bat dator jarduerok legeztatu arte udal-agintaritzak ixtea, ingurumena babesteko 3/1998 Legean ezarritako prozedurari jarraiki.

6. **Jarduera-lizentziaren kontra aurkeztutako administrazio-errekurtsoari erantzuteko betebeharra.** Erreklamazioan azaldutako kontuetariko bat da abuztuaren 31ko 4252/2012 Ebazpenaren kontra aurkeztutako berrezartzeko errekurtsoari erantzunik eman ez diotela. Ebazpen horren bidez, lokala handitzeko jarduera- eta obra-lizentzia eman da. Kexagileak ebazpen horren aurkako errekurtso bat jarri zuen 2012ko urriaren 18an, besteak beste ingurumen-legezketasunak jasotzen duen jendaurrean jartzeko izapidea ez zelako egin.

Jendaurrean jartzeko izapide hori 3/1998 Legearen 58.1. artikuluan dago jasota. Honakoa dio artikulua horrek: "*Hirigintzako planetan edo udal-ordenantzetan oinarrituta udal-eskumenengatik jarduera-lizentzia espreski ukatzea ez dagokionean, alkateak 15 eguneko epearen barruan jarduera ezartzeko eskearen espedientea jendaurrean jarriko du, Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, eta pertsonalki jakinaraziko die ezarriko den lekuko inguruko auzotarrei*".

Bidalitako udal-informazioan, ez da jaso jarduera-lizentziaren aurkako berrezartzeko errekurtsoari emandako udal-erantzuna.

Gogorarazi behar dugu herri-administrazioek interesdunek egiten dituzten eskaera guztiei berariazko erantzuna emateko betebeharra dutela. Udalak behar bezala izapidetu behar ditu biztanleek aurkeztu dituzten idazki guztiak, arin, biziki eta eraginkortasunez, espedientea behin betiko ebatzi edo amaitu arte.





Horrela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua berriaz jasotzen du herri-administrazio guztiei zuzendutako agindu hori.

Era berean, esan behar dugu erantzuteko betebeharrak ebazteko epea amaitu dXXXn ere irauten duela, eta ebazpena eman behar duen organoaren titularrari diziiplina-erantzukizuna sor diezaiokeela.

Prozedura-izapideak eta herritarrentzako egiazko erantzuna egotearen bermea Espainiako Konstituziotik beretik dator —103.1 eta 105. artikulua— eta, Lisboako Itunak sartutako Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartako 41. artikulua xedatzen duenez, herritarrek administrazio egokirako duten eskubidearen baitakoak dira.

Dagokion izapideak bideratu ez direnez eta, bereziki, kexagileak jarritako errekursoari administrazio-ebazpenik eman ez zaionez, administrazioak ez du normaltasunez jokatu eta Ararteko erakundeak horren berri eman behar du.

Gauzak horrela, Arartekoak azpimarratzen du udalak kexagileak aurkeztutako errekursoari alait lasterren erantzun behar diola egindako eskaeran eta aipatutako legezketasunean xedatutakoari jarraiki.

7. Neurri **zuzentzaileak betetzearen kontrola eta ikuskapena**. Dagozkion lizentziak edukitzeko betebeharrak gain, udalak gogaikarria izan daitekeen jardura funtzionatzen hasi baino lehen eta garatzen den bitartean ezarritako neurri zuzentzaileak betearazteko ardura eduki behar du.

Kasu horretan, udala da ingurumen-eskakizunen kontrola ikuskatzeko organo eskuduna.

Berrito ere, nabarmendu behar dugu botere publikoek sailkatutako jarduerak kontrolatzeko eta ingurumen-legezketasunera egokitzeko eskatze aldera bideratutako jarduna ez dela hautazko kontu soil bat. Ahal publiko horietaz baliatzea ordena publikoko kontu bat da, ordenamendu juridikoak interes orokorraren alde eginez esleitzen diona.

Garrantzitsua da aipatzea neurri zuzentzaileetan xedatutako mugak gaintzeak betebeharrak hau dakarrela: udalak dagokion ingurumen-ikuskapen eta -kontrolako prozedura abian jarri behar du, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 64. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez.



Era berean, azpimarratu behar da udalak ingurumen-diziplinari dagokionez dituen eskumenak ez direla ingurumen-araudira egokitzeko eskatzera mugatzen. Administrazioak egiaztatzen badu neurri zuzentzaileetan ezarritako mugak gainditu direla, une zehatz batzuetan gertatzen den zerbait bada ere, dagokion zigortzeko espedientea abian jartzeko betebeharra dauka, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 106. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraiki.

Zentzu horretan, toki-erakundeek ezin dute inoiz atzera egin ordena publikorako eta ingurumenerako kaltegarriak diren egoeren aurrean pertsoneri edo ondasunei benetako kalteak eragin arte. Era berean, ezin dute espedientea luzatu jarduerako arduradunek jarduera legezkotasunarekin bat etorraraziko duten itxaropenen oinarrituta. Ezinbestekoa da udalak arrisku-egoera amaitzeko esku har dezala, beharrezko neurri zuzentzaileak hartuz edo zuzeneko arduradunei hori egin dezaten aginduz.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Udalari gomendio hau egiten diogu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

- XXXX kaleko taberna-jatetxeko jarduerari dagokionez, hirigintzako araudia eta ingurumen-araudia hausteagatik aurkeztutako salaketei dagokien izapidea eman diezaien.
- Kexagileak abuztuaren 31ko 4252/2012 Alkatetza Ebazpenaren (horren bidez, jarduera- eta obra-lizentzia eman da) kontra aurkeztutako berrezartzeko errekurtsuari erantzun diezaion.
- Baldin eta Getxoko Udal horrek badaki aipatutako jarduerak nahitaezko lizentziarik gabe edo aldeztatik komunikatu gabe funtzionatzen duela, eta dagozkion salaketei kalterik egin gabe, alkateak egoera hori Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 65. artikulua jasotzen duenaren arabera erregularizatzeko jardun behar du.
- Bestalde, mota horretako jarduera gogaikarriari ordutegiari eta ezarritako neurri zuzentzaileei dagokienez eska dakizkiekeen neurri zuzentzaileak betetzen direla berma dezan. Era berean, lokalaren kanpoaldeko espazio publikoaren okupazioa dela-eta esku hartu behar du.

